



GIH FAKTOREA AURKI EZAZU

Helburuak

- Haurren Nazioarteko Eguna ospatzea (azaroaren 20a).
- Erabakiak hartzeko prozesuen inguruko ikaskuntzak sustatzea.
- Ingurunearen behatzea, analisi-gaitasuna, sormena bultzatzea eta beharrianak, helburuak eta baldintzak adierazteko gaitasuna garatzen laguntzea, parte-hartzerako eta adierazpen askatasunerako eskubidea sustatuz.
- Lanbideen eta garapen profesionalaren inguruko ezagupena sendotzea, beren orientazio akademiko eta profesionala erraztuz.
- Mundu osoan ospatuko den Haurren Nazioarteko Egunarekin bat egitea. Egun horretan, hitza emango zaie haur eta nerabeei.

Beharko diren materialak

- "GIH Faktorea" lanpostu baten deskripzioa egiteko txantiloia. Hemen eskuragarri: www.unicef.es/eus/educa/GIHfaktorea
- Haurren eskubideei buruzko posterra era Garapen Iraunkorrerako Helburuen posterra. Hemen eskuragarri: www.unicef.es/eus/educa/GIHfaktorea
- Deskripzioaren inguruan taldean lan egiteko materiala: idazteko tresnak, paperezko plegu handiak, arbela, post-it, etab.
- Lanpostua deskribatzeko txantiloia betetzeko materiala. Halaber, azken dokumentua dekoratzeko kolore edo materialak.





Garapena

Lanbideen gaia Garapen Iraunkorrerako Helburuen (GIH) eta haurren eskubideen esparruaren baitan kokatzen dugu. Hasierako galdera ondokoa izan daiteke: “Gure ustez, zeintzuk dira haurren eskubideen eta GIHen alde lan egiteko gaitasunik handiena duten lanbideak?” Horrek eztabaida piz lezake ikasgelan, non bidezkoago, iraunkorrago eta haurren eskubideekiko adeitsuago izango den mundu bat lortzeko esfortzuan lanbide horiek izan dezaketen eraginaz hausnartuko dugun. Ez dute zertan goi-mailako lanpostuak izan beharrik. Gure inguruko lanbideetan inspira gaitzek eta beren posiziotik zer egin dezaketen baloratu. Haurren eskubideen eta GIHen posterrak gida gisa erabil ditzakegu.

Ikasleak talde txikitan banatuko ditugu eta horietako bakoitzak aldeaz aurretik aipatu ditugun lanbideetako bat aukeratuko du. “GIH Faktorea” dokumentua dute eta, taldearen barruan, lanpostu horretarako beren ustez garrantzitsuenak diren baldintzak adostuko dituzte, jaso dituzten argibideei jarraiki. Txantiloia bete eta beren nahierara dekoratuko dute erakargarria egin eta hautagairik onenentzat deigarria izan dadin.

Lanpostu-profilak erraz ikus daitezkeen ikasgelako edo eskolako lekuren batean jar daitezke edo sare sozialetan partekatu, #GIHfaktorea hashtag erabiliz.



Zabal ezazu!

- Zuen lana sare sozialetan zabaltzeko nahi baduzue, #educaderechos hashtag-a erabil ezazue ahalik eta jende gehienarentzat irits dadin.
- Prozesuaren eta hautagaitza-eskaintzen argazkiak egin itzazue. Argazki horiei guztiei esker beste pertsona batzuek zuek bilatzen dituzuen #GIHfaktorea profilak ezagutzeko aukera izango dute eta, agian, beren profil propioak osatzeko gogoia izan dezakete.
- Ikasmaita gorenengan, prentsa-talde bat era dezakezue. Honek, jardunaldiaren jarraipena egin eta post bat idatz dezake zuen blogerako. Argazkietan agertzen direnek horretarako baimena eman dutela ziurtatu beharko duzue.
- Zuen lanpostu-profilak www.unicef.es/eus/educa gure webgunean argitaratu nahi badituzue, posta bat bidali ezazue educacion@unicef.es helbidera. Atsegin handiz zabaltzeko ditugu!
- Jarduera hau garatzeko ideia gehiago, www.unicef.es/eus/educa/GIHfaktorea helbidean.



HAURREN NAZIOARTEKO EGUNA: **AGINTEA GURE ESKU**

UNICEFek mundu osoan azaroaren 20rako proposatu duen *takeover* (agintea hartzea) kontzeptuak beren inguruko ardurazko karguak (hedabideak, politika, enpresak, etab.) haur eta nerabeen esku utzi nahi ditu.

Jarduera hauen bitartez, A20tik gertu dauden egunak hurrei ahotsa eman eta beren iritzia adierazi eta aipatua aintzat hartua izan dadin duten eskubidea sustatzeko aprobetxatuko ditugu.

Azaro honetan mundu osoan garatuko diren ekimen guztiak jarraitu ahal izateko, ondoko hashtag erabil itzazue:

#HaurrenNazioartekoEguna #WorldChildrensDay edo
#DiaMundialDeLaInfancia



Ikaskuntza taula

Ikasmaila guztietarako aproposa den jarduera (beharrezko curriculum-egokitzapenak eginda).

HELBURUAK

- Bidezkoago eta iraunkorrago den mundu bat lortzeko esfortzuan lanbide ezberdinek izan dezaketen papera ulertzea.
- Pertsona bat bere lanpostuan baliotsu egiten duten ezaugarrien inguruan hausnartzea.
- Ezezagunak edo ia ezezagunak diren lanbideak deskubritzea.
- Lanbideak, duten botere, ospe edo entzutearengatik baino, gizartean duten eragin positiboarengatik baloratzen ikastea.

EZAGUTZAK

- Lanbideak eta orientazio akademiko-profesionala.
- Lehen harremana hautaketa-prozesuekin: nola definitu lanpostu bat eta hautagaietan zer bilatzen den.

JARRERAK

- Lanbideen ikuspegi positiboa, gizartean duten beren eragin positiboagatik (ospe edo entzutearen orde).
- Lanbide bakoitzari loturiko ezagutzak eta abileziak baloratzea.

GAITASUNAK

- Helburuak eta jomugak adierazteko gaitasuna.
- Talde-lana.
- Adierazpen plastiko eta bisuala.

Haurren eta biztanleria globalaren zein eskubide lantzen al ditu jarduera honek?

- Parte hartzeko eta ukitzen dituzten gaien inguruko beren iritzia adierazteko haur eta nerabeek duten eskubidea.
- Hezkuntzarako eta lanbide heziketa eta orientaziorako eskubidea eta haurren gaitasun gorenen garapenean duten papera.
- Pertsona bakoitzaren garapenerako eskubidea eta bere komunitatearen eta gizadi osoaren garapenari egiten dion ekarpena.
- Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH).

